

**Abadiño.**

**Mendiola.**  
Aurten Kistobal deunaren egunean belbileen yoateko uztea Mendiola'ra enki gendun, baña pofot egin dausku asmu ofek, trenbidea igaroteko baimena eldu ez dalako. Au dala ta, emakumok pozik ei dagoz, Kistobal deunaren eguna bakean igaroten itxi dautseguelako. Ermenegildok be arfozkoletxe, lebatz, olasko, limonada ta abar gertu euki ei ditu, belbileen doazenai emoteko, baña gero utz emon dautsie. Tamaletan egon ei da. Gitxiagorako be ez da-ta. Baña Ermenegildo ofen bildufik ez euki, yateko aldia elduko da-ta.

**Baso-eleizan.**  
Kistobal deunaren egunean Meza Naguzia Ugalde ta Atutzak lagunduta Letona'tar Aureliano jaunak esan eban. Itzaldia oso ederto Agifeolea Aba josulaunak egin eban. Urkiolape etzan agiri, Ermenegildo bez, ez daki nora demontrez yoan ziran egun atan. Eleizatxo gustiz txukun eguan. Gero Sofio ta emaztiak bere biziko ardurea daukie ermitori apaiz egon daiten. Zorionak Sofio ta bere emaztiari ta Mendiola'ko auzo guztiari ain epain ermitea ipiñi dabelako.

**Gaztelu'kuak**  
Be oso ederto Martin deunaren yak igaro dituez. Gaztelu'n be ermita polito ipinita euki dabe. Zorionak guztiari ba.

Norbaitek itandu daust, ta gazteezaz, zer diñozu? Ezertxu bez erantzun neutson. Nik euzkeldunentzat bakafik idazten dot eta euzkeraz.

**Jayotzak.**  
Agife'tar Paulo ta Elorza'tar Rufina'k semetxo bat Migel izenagaz ugutzau dabe ta Teleria'tar Kandido ta Petralanda'tar Luzia'k alabatxo bat Maria izenagaz. Zorionak bitzui.

**Naskaldia.**  
Garamendi ta bere emazte Itxaufandieta'tar Benita abertzale zintzoak, emendik izan dira egun batzuk igaroten. Nikolasa, alarguna, Ganaren eta Galindez'en sendiak udaldia igaroteko asmuz efitatu dira. Ondo etofiak.

**Azterketak.**  
Mendiola'ko ta Matiana'ko ikastoletan azterketak izan dira. Oso ederto egon ei dira. Zorionak bitzuetako irakaslariai.

**Etzeratu**  
Albizuri'tar Julene, Matiana'ko irakaslemia bere gizon Armendariz'tar Maximogaz ezkon aldiko egunok Madrid, Burgos, Barzelona, Iruña, Gazteiz eta beste uri batzutan igarota etzeratu dira. Zorionak.

**Egualdia.**  
Serapio oraingoan buruti ibili yaku. Euri izugafiak iragafi ta bat be ez dau egin. Au ikustakoan Balendin Gantzakori esan dautzat zer egingo dogun Serapion titulu ofegaz, eta erantzun daust, puntu bat erazteko. Ba eratzita dago. Ota-bedafen ganean kontuz ipiñi bearko da guardasol ori, bestela zure kaferea estudianten tunanteena baño luzeago izango da. Irupuntu daukazuz, eta sei bear dozuz titulurako.

TRAÑA

**JANTZIAK**  
gizonentzako Teodoro-nian egingotzue iñun beizen ondo eta lauako asko kendubarik.  
**TOVALINA Y C.ª L. D.**  
SOMERA TT  
BILBAO  
Lenengo oñian sartukeria dendafik.

**Otxandio.**

**Eriko jayak.**  
Datofen astian 18'an asiko dira efiko jayak. Ba-da gertakizune ugeri. Etxiak zuritu eta atondu. Ontziyak garbitu, Mariña Deunaren egunian erbestetik datozen norberen sendikuak bier dan eran artzeko. Eleizkizunak beti lez ospatasun andijagaz egingo dira, pelota txapelketa, txistua eta erespatza ugeri.

**Lugin-arazoak.**  
Lur sagafari sulfatue egiteko egun onen-baten etorteko dira inkireñuek Bilbo'tik, Udalak ikusirik etxuraz lur-sagafa ederto datofela, lortu dau sulfatue egitie, beste urietan lez gofiñiek galdu baño lenago.

**Orgaïne baristu.**  
Gure txauburue gogor dabil batieta bestien txindije batzen orgaïne bafistuteko. Bier bier-ixeneko lana da. Aituten daben gustiak diñue, ezagutzen danetik onena dala, premiña andijen daguala ikututxo bat egiteko, jakine ba, ainbat urtian egonda, iñok ikutu barik. Balijo dabena dan lez, asmo edefa da gure txauburuarena. Efitafok defigortasun andija daukogu laguntzeko berrari, daukenak daukenagaz, aldabena aldabena antzera, geure ziñesmen onerako eta Elizia goralduko. Badakigu askok txindijaz bete-betian dabilzela, baña gogua daukenak gauza onari laguntzeko andik edo emetik, beti jsulotxuen bat aurkituko dau, ofegaitik ba, erakufsi borrontate ona eta batez bere maitetasune gauza onari, emonik al dabena al dabena.

**Auzuna ikastoletako umetxuak.**  
Lengo egunian euki ebezan azterketak. Ederto egon ziran. Gero bafez ondo egiñen alde, belbil baten sartute juañ Bolbo'tik-ziar, Gorliz'era, ikusirik itxesua. Pozik etofi ziran egun edefa igarota. Bai ba geyenak itxesua ikusi barik, ixontzirik bere ez, iñora iñoñ juañ barik. Basa-efitik iñora juañ bakuak.

URIGOIKO

**Elelz - Jantzi ta urregintza**  
**A. Rui-Wamba**  
Elelzak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke  
Plaza Nueva, 10 Urutizkina 14.238  
**BILBAO**

**Dima.**

**Jayak.**  
Amaitu dira gure aurtengo jayak be. Eleizkizun ospetsuak izan diguz Aita Martin Begoña'ko Karmeldar Aba ta Lafañaga'tar Eukeni jaunaren itzaldi edefakaz. Efi-jaiak be ez dira izan gustiz txafak. Otxandio'ko eresbatza be emen izan da egun batzuetan.

**Pasio ta Ubide.**  
Pasio'k Ubide Olazabal'erantz igaroko ebalakoan egon gara jaiotan, baña... ez dogu ikusi. Aldatzak nor ez dau bildurtuten...!

**Naskaldia.**  
Gogo-iñarkunak egin ondoren Pedro Uriarte ta Vicente Unzueta jaun argiak be etofi dira Gazteiztik. Emen agurtu doguz Bilbao ta Donostia'ko Aldazabal ta Egiguren gastek.

**Eriotza.**  
Lengo barikuan obiratu zan Teodoro Baraus'koa. Euren atsekabeen laguntzen deutsegu bere seme-alaba ta senideai.

X. X.

**Irakuri ta zabaldu**  
**EKIN**

**Joseba Deuna'ren Idaztegia**

(Libreria SAN JOSÉ)

Bilbao'n danik orniduenaz uz-kurtz'izazko saloskai gauzetan.

**BILBAO'n Loteria 2**

**GORUNTZ - GAYAK**  
Eunak, bale-bizarak, zumitz ugar-gaitzak  
**Zubiri'tar Bingen**  
Artekale, 50 **BILBAO**

**JOSE LUIS ABAITUA'ren**

**GABEUKAZ ETA BITXI-TEGIA**  
Ormako, sakeleko ta eskubitufeko gabeukatzik onenak zidafezko naiz ufegofitzkoak. Deun gustien domiñak, norberak gura dauzan era-erakoak. Apurtuak osotu ta bafiztuten dira.  
**Postas 28 - Gazteiz - Vitoria.**  
Idazketxe-aufean = Frente a Correos

**Mañari.**

**Jai begiko bat.**  
Lengo igandian, Urkiola-ganian Umien-jaya ospatu zan. Andoni deunari zor andijak dautsoguzan ume andijok be, jai txukun ofetara ezin izan gendun «paltau». ¡Amaitatxu ume eder ikusi genduzan bertan! Euzko-gurasuak Andoni deunari opalduariko zitiori-lafosa eder-edefak ziran. Euren artian emekuak be ainbat ziran; Ikernetxu ta Garbinetxu ta abar, gure auzo neskatxu batzuk be, antxe ikusi nebazan.

Amarterdijetan mesa nagosija; ta onen aufetik umien ibildeuna (prose-siñua) eleza bafuan; geyenak, zitiori-txortak eskubetan ebezala ibili ziran. Jaupa bitartian, Untzuea'tar Portunata abade jaunak, berbaldi txukuna ta edefa egin eban. Eta gero, deunari omena egiñen, danok goiko aldara aufetik itzalez igaro gintzan; eta andik igarokeran, Garbiñe neskatotxuak, belafira ixilian esan eustan: «Andoni deunak, ebakintza egin barik osatuko baninduke...»

Berbatxu onek, neure begijari, melko samur batzuk ixuri eragin eutsazan; eta neuk be, berari, ixilian belafiratu neutsan: «Baliteke, baliteke, andijagorik egin dau-ta». Bifartian, Deunetxeko txaukeskindarijak, abots edefez abesten eban:

Mirarijak ugari ba-dozuz bilatzen, Urkiola'ra etofi santuari eskatzen.

Igandeko jai ori, jai begikua, txukuna ta eder-edefa izan zan; gotzon-jaya izan zan-eta.

**Batzara.**  
Igande afatsaldian, E. A. B.'kuak batzar orokafa ospatu gendun; eta berta, ganian dogun euzko-jaya dala-ta, asmu bereziz artu genduzan.

**Juan-etorijak.**  
—Egun batzuk igaroten aurkitzen da, Solaun'dar Koldobika mutil gaste abadegeya.

—Urkiola'n agurtu geban, «Tabiratafa» idazle azkafa.

—Lengo baten egon zan emen, Ariznabafeta'tar Joseban mutil aberztalia.

**Pozgarizko unia.**

Igandian, Paris'ko «Euzkual-Ikale-Biltzafa»-kuen itzaldi ta abestijak, ifatizkiñetik, «radio»tik, atsegiñez entzun genduzan. Lhande Aña agurgafijaren berbaldija, bijotzeraño sartu yakun. ¡Axe berba egifia; axe gauza edefak esatia! Abeslari-taldiak be, poz berarizkua emon euskun. Belen'goa ta Euzko-Abendaren-Ere-serkija abestu ebenian batez be. Zorijonak, zeberi, Paris'ko anai mafeoi; zebeñ itzaldi ta abestijak zala-ta, une gozo bat igaro gendubalako.

MAÑARIKO

**Ondaróoa.**

**Mendaro'ra.**  
E. A. Batzaren askundia zala ta Mendaro'n ospatu ziran jai aberko-yetara, bide luziaren bildur andi barik notintza andija izan zan oñez juañ zana.

**Gudaritzara.**  
Ixtasoko gudaritzarako amaika mutil gaste lapurtu euskuzan igazi dan larunbatez España'k. Abefi onek azpiratu giñuzan ezkeror zoritxafa ugari ezafi dausku, baña ez auxe txikijena.

**Miren'en alabak.**  
Juan dan igandez ixan ebezan Miren'en alabak euren ileroko jaunartze ta beste txadonkixunak.

**Batzara.**  
U. B. B. ta batzokiko artezkaritza bafiztatzeko eta epaikaritza aukeratzeko batzar bat egin zan igandez Euzko batzokijan eta onela osotu ziran.

Lendakarija. Bedialauneta'tar Sekunda; Idazkarija, Beristain'dar Bonipagi; Txindi-zaña, Lezea'tar Jon Koldobike; Batzordiak, Bedialauneta'tar Bartoloma, Afizabalaga'tar Joseba.

**Epaiakaritza.**  
Lendakarije, Ufesti'tar Pantzezka; Batzordiak, Badiola'tar Alexander, Goyogana'tar Ipolita.

**Euzko Batzokija.**  
Lendakari, Afasate'tar Sandali; Idazkari, Ibiñarte'tar Koldobika; Batzordiak, Ibaibafiaga'tar Jakinde, Lertxundi'tar Elazar.

**Udazaliak.**  
Eguraldi edefak be badagoz da, udazaliak etortzen asi yakuz geure uri polit onetara.

Ondo ixan dadixala opa dautsogu. «Club Atxuritafa». Itxaroten doguz bijar iganderako «Club Atxuritafa»ko bazkidiak eta diñueñez egun alai bat igaro eragin-godauskuba. ¡Ai alan balitz!

ITURI-ONDO

**Eunak eta soñeko egifñak**  
**Zeara'tar Erupin**  
**Tenderia 15 Bilbao**

**Natxitua.**

**Gari ebaten.**  
Gogor diñardugu basefitafok gari ebaiten; izpar onek irakurten doguzenerako amaituez juango dira, egualdi onak badira beintzat. Laster asi biar gara indiafak batzen. Bada lana orainguan basefijetan; gero esango dabe kaletafak ondo bizi gariala.

**Kontra-bandua.**  
Uri onetako udalak kontra-bandua afapateko arduria efi-zañai emon dautse. Ezta ondo kontra-banduan ibiltia baña ¿Ondo ete dago gauza guztiya albo efijetan baño karuago egotia? Nik eztot uste.

**Dabiltsanak.**  
Geure artera udako aldija igaroteko Bilbo'tik Zabala'tar Emilia, bere senar Angel eta semetxuagaz etofi dira.

Gernika'tik Aboitz'tar Galo eta Orbe'tar Juan.

Zeanuri'tik Ozerinjuregi'tar Felisa'ren aistia. Ondo ibili.

*Euzkelduna, lagundu euzkeldunari.*

Jakitun zagoze guztijok Gipuzkoa'ko anayak zer jan eta zer edan barik gelditu dirala eta eurari laguntza apur bat egiteko arpidea zabaltzia erabagia dogu batzokijan, uste osuagaz zeuen laguntza eztautasuela ukatuko. Zeuen diruagaz ixen-apileduak be emon biar dozuez.

KURUTZE-GANE

**Mendata.**

**Naskaldia.**  
Lengo egun baten juañ zan gudari gure «Gaste-belu». Abertzale zintzoa izan da. Utsune aundie itxi dau geure artian. Len-bait-len etofi daitela gura geunke.

Olaeta'tar Seber, bertoko mendi-goizalia, egotaldi bat egin ta juañ da gudari dagon efira.

**Lotsagaría.**  
Abertzalien izena deuken baten batek, atzefitar jolasak jolastuten ditu al daben guztian. Onelakoak ez dira benetako abertzaleak, eta guzuzefeko abertzalerik, ez dogu gura.

**Jel-aldez.**  
Emengo mendigoizale ta emakumeak igandian Muxika'ra izan ziran. Il onen 30'gna danok Munitibar'era, eurak be etofi ziran-ta.

**Gexorik.**  
Aufe'tar Bonabendur ta bere emazte Apraiz'tar Estepane gexorik aurkitzen dira. Ainbat ariñen osatu deitezala gura geunke.

ZORUNA

**Beñiz.**

**Kistobal Deuna.**  
Gor edo entzun-gatx asko izan da aurten be Oiz-mendiratu ziranak ton-tor aretan aurkitzen dan Kistobal Deunaren basotxonoan efegu bero batzuk egiñaz euren gortasun edo entzun-gatxak aldenduko baleukez jaun onari eskatzen. Eta baita beko Kistobal Deunaren basotxonara be asko juañ ziran; basotxono au oso ufian dago Befiz'tik, eta gora juañ ezin diranak eta ufin eritxi eta alpefez geratuten diranentzako oso ederto; augaitik onetariko gustijak bekuan ziran; sendi osuak goixan juañ da egun gustija bertan igaro ebenak ainbat izan ziran. Egun au, emen aitzen dan lez, umorerik onenagaz geyenak eta lafegijagaz bestiak igaro biar izan eben; bazan bai aufeskua eta abafa gure agure zafen artian be; ango geldi egon ezñiek ez ei-eban atzenik arik eta ilunabafera arte, baña ilunabafian, bai batzuk «zafak» igesi eta gastiak zortu, agur Kistobal Deunaren egun ospetsu.

**Geixorik.**  
Aspaldi onetan gexorik aurkitzen da Arana'tar Gergori, Bizkai-aldun izanekua; efegu irakurle Jaungoikua'ri beren osasun onagaitik.

**Idazkari barija.**  
Epaikari jaunaren idazkaririk ez eguana efi onetan, orain dala aste batzuk agertu biar izan eban Madrid'eko izpafingiren baten, eta utzune anditxua eritxi ta etofi da bat, Galizia'ko lufetatik etofi be; augaitik emen dogu orain, baña eztakit zelan aituko jakuzan gure Epaikari jauna eta Idazkari bafi au. ¡Aituko al dira ainbat onduen gure mutilok!

ALPERAUNDI

**LOIDI TA ZULAIKA**

Mairako ardu on-onak. Ardautegi aundiak Alcázar de San Juan'en (Ciudad Real'en)

**Meza Santurako**

**BERARIZ TA BERIAN-BERE GERTARIKO**

**Ardau eder-ederra**

ZUZENBIDIA: Idiakez, Donostia=Urutizkin eta ufutidazkiñez: LOIDI.